

# Azkue gramatikalarari



Itziar **Laka**\*

*Azkue euskararen batasun-bidearen ardatza izan zen hasieratik heriotzeraino, euskararen batasun-bidean: lehenik, bizkaieraren bateratzean, eta 1919.ean Euskaltzaindia sortuta, euskararen batasunean. Ibilbide horren hasieran, 1891.ean argitaratu zuen Euskal Izkindea gramatikari buruz jardungo dut, eta bertan proposatu zituen berrikuntzek gerora izan zuten arrakastaz. XIX.aren amaieran sortu eta XX.aren erdialderarte garatu zen bizkaiera idatziaren ereduetan, bai garbizaleetan, bai herrikoietan, Azkueren eragina nonahi aurkitzen da.*

*Giltza-Hitzak: Garbizaletasuna. Bizkaiera idatzia. Gramatikagintza. Euskara.*

*Azkue fue el eje del proceso de unificación del euskara desde el principio de sus trabajos hasta su muerte: primeramente en la unificación del dialecto vizcaíno y, después, a raíz la fundación de Euskaltzaindia en 1919, en la unificación del euskara. Trataré del comienzo de esta trayectoria, de Euskal Izkindea, gramática publicada en 1891, y del éxito que posteriormente tuvieron las propuestas allí aparecidas. En los modelos del vizcaíno escrito desarrollados desde fines del siglo XIX hasta mediados del XX, tanto entre los puristas como entre los escritores populares, la influencia de Azkue aparece por doquier.*

*Palabras Clave: Purismo. Vizcaíno escrito. Producción gramatical. Euskara.*

*Azkue fut l'axe du processus d'unification du basque depuis le début de ses travaux jusqu'à sa mort: premièrement dans l'unification du dialecte biscaïen et puis, aussitôt après, dans l'unification de l'euskara lors de la fondation d'Euskaltzaindia en 1919. Je parlerai du commencement de cette trajectoire, d'Euskal Izkindea, grammaire publiée en 1891, et du succès que connurent ensuite les propositions qui y figuraient. Dans les modèles du biscaïen écrit développés depuis la fin du XIXe siècle jusqu'au milieu du XXe, aussi bien parmi les puristes que parmi les écrivains populaires, l'influence d'Azkue apparaît partout.*

*Mots clés: Purisme. Biscaïen écrit. Production grammaticale. Euskara.*

---

\* UPV/EHU. Euskal Filologia Saila. Hizkuntzalaritza Orokorra. Avda. de las Universidades, 5. 01006 Gasteiz.

## 1. SARRERA: LAN HONEN NONDIK-NORAKOAK<sup>1</sup>

R.M. Azkue euskalaritzaren ardatz erraldoia izan zen bere lehen lanetatik (1891) hil arteraino (1951), hain zuzen euskararen batasunerako bidearen zatirik garrantzitsuenetakoan: lehenik, bizkaiera idatziaren bateratze lanetan jardun zuen, eta Euskaltzaindia sortuz geroztik, euskara osoaren batasunera eramango zutenetan. Zeregin larriak izaki hauek, halakoak dira Azkuek utziriko emaitzak ere: “Increíble que aquello sea obra de un hombre solo”, Olabidek behin esan bezala.

Garaia heldu doa, azterketa sakonari ekitekoa, laudorioez gaindi. Horixe da, izan ere, euskalaritzak Azkuerekiko duen zorra betezeko modurik egokiena; ezinbesteko zeregina dugu, berak utziriko ondare joria ezagutu eta aztertzea.

Eusko Ikaskuntzak Azkueren omenez hitzaldi bat emango ote nuen galde-tu zidanean, gorago aurkitzen duzuen izenburua aukeratu nuen, labur eta soil. Haatik, izenburu hau handi samar datorkio hemen eskeiniko dudan idatziari. Ez dut bada, Resurrección María de Azkuek bere ibilbide luzean euskal gramatikari buruz egindako lan erraldoi osoari buruz hitz egingo. Egia esateko, ibilbide horren hasieran burutu zituen gramatika lanak dakartzat batik bat aztergai. Geroko lanei buruz zertxobait esango badut ere, gaurkoan, gutxiago ezagutzen den bere gaztaroko lanaz hitz egin nahi nuke. Hots, XIX. mendearen bukaeran idatzi zuen *Euskal Izkindea* (1891) gramatika liburuari buruz hitz egiteko asmoa dut oraingoan. Azkuek burutu zituen beste hainbat lan itzelen ondoan, *Euskal Izkindea* izkutaturik bezala ageri zaigu; honela, euskaldun gutxi dakite berau dela euskaraz idatziriko lehenengo gramatika, esaterako.

Zerk narama Azkueren gramatikagintzaren zati hau aztertzea? Ohi den legez, beste mutur batetik heldu nintzen, duela hamabost bat urte, lekeitiar erraldoi honen magaletara: Evaristo Bustiza, “Kirikiño” idazlearen *Abarrak* ezagunaren argitalpen bat prestatzen ari nintzela<sup>2</sup>, mende bien artean zangalatraban den garai hartako bizkaiera idatziaren ereduari buruz genekiena gutxiegi zela ikusita abiatu nintzen ikerkuntza honetan.

Jakina da, 1890-1936 tarte hori, garbizaletasunaren erresuma izan zela; batetik baziren Sabino Arana eta bere jarraitzaileak, *aranatarren eskola* osatzen zutenak, eta hauen aurrean Azkue, herri-euskararen abokatu. Alabaina, horra, bada beti zer ikasirik, Azkueren kasuan, harriduraz ikasi bainuen nik, gaia ikertzen nuela, Azkuek berak sortu eta hazi zuela, neurri handi batean behintzat, garbizalekeriaren herensuge hura, eta urteen buruan jazarri eta

---

1. Eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Ikaskuntzari, eta Lekeitoko udalari, Azkueren heriotzaren 50. urteurren honetan parte hartzeko aukera eskeini didatelako. Eskerrak eman nahi nizkieke baita ere, duela zenabit urte jada, lan hau burutzeko ikerkuntzan lagundu zidaten J.A. Arana-Martija eta I. Sarasola euskaltzainei.

2. BUSTINZA, E. “Kirikiño” (1986) *Abarrak*, I. Lakak prestatutako edizio kritikoa, Klasikoak saila, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz.

burrukatuko zitzaiola, kemen handirekin, beharbada bere kumea zela jabeturik zegoelako bera, beste inor baino hobeto.

Lan honetan, bada, XIX mendearen azken urteetan sortu eta XX. mendearen erdialderarte garatu zen bizkaiera idatziaren ereduaz Azkue gaztearen lanak izan zuen eragin handia erakutsi nahi nuke. Azkueren eragina bitarikoa da: batetik, garbizaleek erabiliko zuten hizkuntza eredu idatziaren ardatz nagusiak sortu zituen, eta bestetik, garbizaleen ereduari jazartzen zitzaion eredu herrikoiagoaren buru dugu. Kontraesana badirudi ere, Azkueren itzala aurkitzen dugu bizkaiera idatziaren eredu biotan, lehena bere gaztaroko lanei lotua batik bat, eta bigarrena bere heldutasuneko lanei, *Morfología vasca* agertzen delarik horien artean nagusi.

Garbizaleek eratu eta erabili zuten eredu idatziari, Mitxelena irakasleak *hiperbizkaiera* izena jarri zion, eredu honetan gainerako euskalkietatik gehien bereizten ziren aditz eta hitzak aukeratzeko joera nabarmena agertzen duelako<sup>3</sup>. Nik ere, maisuari jarraiki, *hiperbizkaiera* deitura erabiliko dut eredu idatzi hau aipatzean. Hiperbizkaieraren iturria, hots, bizkaiera idatzi berri honen iturri nagusia, Azkueren *Euskal Izkindean* aurkitzen dugu. Ikusiko dugunez, baina, *Izkindean* aurkezten zaigun euskararen eredu ez da hutsetik erai-ki, eta Astarloaren *Discursos Filosóficos sobre la lengua bascongada* liburuko hainbat ideia eta proposamenen arabera eginga da. Honela, bada, hiperbizkaieraren jatorrizko iturria Azkue gaztea dugu, nahiz eta gerora Arana-Goiriren izenari lotu izan zaion eredu idatzi honen sorrera.

Azkuek euskal gramatikaren alorrean egin zuen lanaz jabetzeko orduan, ezinbestekoa da *Euskal izkindetik Morfología vasca* doan bidea ibiltzea. Bide hori luzea eta aberatsa izaki, norabidearen aldaketa nabarmenik antzeman daiteke bertan. Gramatika batetik bestera doan tartean burutu zuen hiztegiak, literatur lanek, itzulpenek, ahozko literaturari buruzko ikerketek, hizkuntzaren ezagutza sakona eta zabala eman zioten. Ez da harritzekoa, bada, bere gazte-lanetatik azkenekoetara dagoen aldea; hor dauzkagu, esaterako, "Txukuneria" izeneko artikuluskari eskeintzen dizkigun burutazioak, bere ibilbidearen erakusgarri. Lan honetan, Azkuek Soloeta-Dimaren liburuaren iruzkin bat egiten digu, eta bertan, beste hainbat burutazioren artean, ondoko hau irakur dezakegu:

"Euskalari berrizale txukuneridun-artean urrutiren yoan zaiguna A. Soloeta dela uste dut. Orretarako dituen kemena eta zaletasuna aundiak izanarren, etzen noski bide legunetik hainbeste irtengo, aurretikoak izan ezpailitu: nerau bat, nerekin batera besteren bat eta arren ondoren eli osoa, berrizale mordo andi ugaria"<sup>4</sup>

3. "Desde hace años, desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamado –no sin acierto conceptual, y que se me perdona la petulancia– hipervizcaíno, formado con sólo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno)" Mitxelena 1981, 300. orrialdea.

4. AZKUE, "Txukuneria", *Euskera* 1925 VI, 2-3 zenb. 14. orrialdea.

Aipu honetan, Azkuek argiro aitortzen du berau dela euskara garbitasunaren izenean eraberritzeko proposamenak egin zituztenen artean lehena, eta berari jarraiki beste zenbait. Hauen artean aipagarrienak, noski, Manuel Arriandiaga, bere ikaslea, eta Sabino Arana gero, bere jarraitzaileekin<sup>5</sup>.

Azkue garbizalea eta Azkue herrikoia, dena den, ez dira elkarrekin zerikusirik gabeko izakiak. Bada bien artean hari bat behin ere etetzen ez dena, zenbait ezaugarriren bidez antzeman daitekeena: erregulartasunarekiko zaletasuna, garai zaharrak hobesteko joera, hizkuntzari ematen dion lehetasuna... Azkueren gramatika lanak ahalik zehazkien ezagutu beharra dago, ez bakarrik abiapuntutik bukaeraraino aldatzen dena ikusteko; baita gorde zuenaren berri jakin ahal izateko ere, eta euskal gramatikaren historian adituak ez diren harritasunerako esan dezadan, aho batez onartuko dutela ikertzaileek ez dugula Azkueren gramatikagintza behar bezala ezagutzen oraindik.

Hona bada, idatzi honen nondik-norakoa: Azkueren aurpegi biak erakustea, nolabait. Batetik, berriztatzaile amorratua gaztetan, euskararen garbitasunaren izenean euskaldunak hitzun txartzat jotzeraino heldu zen gramatikalaria arauzalea. Bestetik, urteetako lanen ondorioz, euskaldunen ahoetan bizi den euskara aztertu eta defendatzen ariko den euskalaria. Haatik, euskaltzalea eta gramatikalaria azkarra beti eta, euskararen ibilbidean sekulako eragina izan zuen lan erraldoiaren sortzailea. Oraindik behar bezala aztertzeke dugun lan erraldoi, erabakiorra.

## 2. AZKUE GAZTEA ETA BERE GARAIA

Azkue, gu guztiok bezala, bere garaiko semea da, eta bere gaztaroko gertaera zenbaitetik garrantzi handia dute bere helburuak eta asmoak egokiro ulertu ahal izateko. Gertaera horien artean, 1876.ean gertatzen den foruen iñausketa aipatzea nahitaezkoa dugu. Gertaera honen ondotik, Euskal herriaren eta euskaldun izatearen berpentsatze orokorra ematen da; honekin batera, ez da harrizkoa euskara berari buruzko irudia ere aldatzea. Euskaldun izatea zer den definitzeko saioekin batera, euskara bera zer eta nolakoa den erabakitzen da, hizkuntzari buruzko idazlan eta gramatika lanetan. Diren euskaldunen aurrean, “izan beharko luketen” euskaldunak, eta den euskararen aurrean, “izan beharko lukeen” euskara irudikatzen hasten dira garaiko euskalari asko. Euren artean buru, Azkue gazte, zalantzarik eta sutsu bat, euskara errotik iraultzera datorrena.

“1888an euskara katedra lortzearekin batera jaiotzen zen Azkue kultur mundura” diosku Kintana Goirienak (2002) egundaino Azkueri buruz egin den lanik zabalenaren egileak, eta aipu hori guztiz zuzena da<sup>6</sup>. Mende bukaera

---

5. Manuel Arriandiaga eta Arana-Goirenen euskalgintzari dagokionez, ikus bitez LAKA (1987a) (1987b) eta (1987c).

6. Izan ere, Azkueren ingurugiro kulturala zein zen zehaztasun handiagoz jakin nahieran, ikus bedi Kintana Goiriarena (2002), orain arte Azkueri buruz egindako bilduma handiena.

horretan, gainera, bizkaiera idatziak sekulako gorakada ezagutuko du, neurri handi batean Azkue beraren eskutik: 1890tik hasita eta 1936.eko gerra arte, bizkaieraz argitaratutako lanen kopuruak gorakada izugarria egingo du, aurreko garaietan ezagutu ez zuen adinekoa. Aldi berean, euskal aldizkariak sortzen dira, *Euskaltzale* eta *Ibaizabal* adibidez, Azkue beraren zuzendaritzapean. Euskalaritzak indarra hartuko du; euskarari buruzko ikerlanak nabarmenki ugaltzen dira: Azkue eta Arana-Goiriren lanez gain, hor dira Arriandiaga, Lopez Mendizabal, Orkaztegi, Arrigarai, Zamarripa eta abar luzea. Ezin ahantzi, bestalde, Julio Urquijoren eskutik sortutako *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkariaren inguruan bildu ziren hainbat eta hainbat ikerlari. Gehiegikeriatan erori gabe esan daiteke, bada, garai honetan ezagutu zuela euskara idatziak, eta baita euskalaritzak ere, ordurateko bultzadarik handiena.

Bizkaierari zehazki dagokionez, susperraldi honetan, literatur hizkuntza berri baten eraikuntzari ekiten zaio. Mende hasieran Mogelek eta Añibarrok urraturiko ildoak utziaz, beste bide berri bat sortzen du mende bukaerako bizkaiera idatziak, nahiz eta, zenbait ezaugarritan, idazle bi hauen joera ezbedinen islapenik aurki daitekeen Azkue eta Arana Goririren idazkeretan.

### 3. GARBIZALETASUNA ETA BIZKAIERA IDATZIA

Jakina da 1890-1936 tarte hori, garbizaletasunaren erresuma izan zela; izan ere, ez ohi da besterik aipatu, garai horietako hizkuntza ereduez mintzatzean. Argitu beharreko kontua, garbizaletasun horren nondik-norakoa da. Sarrienik, garbizaletasuna aipatzean, hiztegi alorrean gauzatu zen joera neologismozale jakin bat adierazi nahi da: Arana Goiri eta bere jarraitzaileek osatzen dutena, hau da, *aranatarren eskola* deitu ohi dena. Hauen aurrean, esan ohi denez, bazen bestelakorik, aurkakorik, nolabait. Garbizaletasunaren aurrean, herri-euskararen defendatzaile, Azkue agertu ohi da, Villasanteren ondoko hitzetan legez:

“Por una parte, tenemos la dirección o escuela aranista, cuyas características ya quedaron esbozadas. Tendencia reformista, purista y neologista a ultranza, que modela la lengua según ciertos principios lógicos o aprioristas, de espaldas al uso real. Contra ella, Azkue, Campión y Urquijo (cada uno con matices propios) señalan la otra tendencia, preocupada por afinar bien el estudio del vascuence y su cultivo literario sobre sus auténticas bases y fuentes: la lengua real, la tradición literaria”<sup>7</sup>.

Villasanteren hitz hauek egia dira Azkueren ondorengo urteei begiratzen diegunean, hau da, *Morfología Vascaren* egileaz dihardugunean. Haatik, Azkueren ibilbide guztia kontutan hartuko badugu, eta bereziki bere lehenengo urteei dagokienez, ñabardunak gehitu beharko genizkio, Azkue bera agertzen baizaigu garbizaleen artean sutsuen. Hor ditugu, garai honetan bizkaieraz idatziri-

---

7. VILLASANTE (1973), 311. orrialdea.

ko testu gehienetan, bai garbizaletzat jo ohi ez direnetan, eta baita muturreko aranatarren eskolakoetan ere, aurreko literatur tradizioan agertzen ez diren hainbat zantzu. Hiztegiak gaindi, ortografiak, gaindi, bada mende bukaerako bizkaiera idatzian berrikuntza ugari; hain zuzen ere, aurreko literatur tradizioa ezagutzen duen edozeinek errezki aipa ditzakeen ezaugarriak. Adibidez, aditz forma berriak: *dautsadan*, *dautse*, *dautsogu* bezelakoak, ordurarte *deutsodan*, *deutse*, *deutsegu* zirenak, edota *gozuz* berria aurreko *gaituzu(z)* klasikoaren orde, *dauz* berria ordurateko *dittu(z)* formaren orde. Aditz forma horiek ezbaierik gabe adierazten digute garai jakin bateko testuen aurrean aurkitzen garela: XIX mendeko azken urteetatik mende erdirarte doan tartean, alegia.

Bizkaiera berriaren batasun hau, inon baino gehiago, aditz morfologian aurkitzen dugu: bai aranatarrek, eta baita inguru horretakoak ez ziren euskaltzale bizkaitarrek, itxuraberritutako aditz sistema erabiliko dute, bizkaieraren tradizio idatziarekiko etena eginaz. Eredu idatzia eratzeko orduan, mende bukaerako bizkaiera honek erabiltzen duen irizpide nagusia erregulartasunaren defentsan oinarritzen da, eta betiere, gainerako euskalkietatik gehien bereizten diren formak hautatzen ditu. Mitxelena dugu joera hau aipatzen duen lehenengotakoa:

Ni en el siglo XVI ni en el XVII (ni tampoco, según creo, en el XVIII) se atestigua el vizc. *gintzazan* “somos”, sino tan sólo *ginean* o variantes de acuerdo con *ginan*, *ginen*, de los demás dialectos; no se halla *dauz* “los ha” sino *ditu* o, a lo sumo, más tarde, *dituz*; ni *ebazan* “lo había” (aunque sí, sin variación, *eban* “lo había”, frente a *zuen*, etc. de zonas más orientales) sino *zituzan* (ibidem)<sup>8</sup>.

Dena den, bizkaiera idatzi berri hau ez da inolaz ere oso eta itxia; badi-ra gutxieneko ezaugarri batzuk (gorago aipatutakoen antzekoak), baina horietatik aurrera, bada maila ezberdinik garbizaletasunari dagokionez. Ez da gauza bera Kirikiñoren ipuinetan ager iden bizkaiera, herriari zuzendua zena, edo Azkueren *Euskal Izkindeakoa*, lantxo honetan eskeiniko diren aipuek erakutsiko dutenez, ulertzeko ere gaitz samar egiten dena.

Non eta noiz jaio ote ziren aditz forma berri horiek guztiak? Azkueren *Euskal Izkindean*, 1891. urtean hain zuzen ere. Oraingoan, eredu berri honen sorburuan kokatuko gara, Azkueren lehenengo gramatika lanari begiratzean. Ereduaren abiapuntua, bada, ez da literatura, baizik gramatikagintza: euskararen izaera eta egiturari buruzko eritzien arabera eratzten da eredu berri hau. Gero, literatur hizkuntzan landaturik, hazi honek gero eta barrurago sartuko ditu bere sustraiak, ekoizpen idatzian erabat hedatzeraino. Euskarari buruzko hausnarketa horren gunea bat bakarra dugu azken finean, euskal identitatearen berpentsaketa orokorraren eskutik datorrena: *euskara garbia*, edo *bizkaiera garbia*, hau da, akatsik gabekoa. Azkue gazteak, *Izkindearen* egileak, euskararen defentsa egiteko, akatsik gabeko hiz-

---

8. Mitxelena (1981), 300. orrialdea.

kuntza dela erakutsi nahi du. Akatsak, eregularitasunetik aldentzen diren gertaera gramatikalak izango lirateke, hizkuntza guztietan aurkitzen diren arren. Euskarak, aurrera egiteko, inguruko hizkuntzek ezagutzen ez duten perfektotasuna erakutsi behar du, horretarako goitik behera berri behar bada ere.

## 5. EUSKAL IZKINDEA

Azkuek hizkuntzari ematen dion lehenetasuna genuke, ene ustez, bere emaitzaren ardatz nagusia. Honi dagokionez, eta *Izkindeak* agertzen duen muturreko eraberritze garbizalea gora behera, Azkuek lekurik gorenean jartzen du euskara, eta honen frogarik garbiena, ganorazkoena nolabait, *Izkindea* euskaraz idatzirik egotea da, hain zuzen ere. Honetan, zinez eta benetan ageri zaigu Azkue aitzindari, hau baita euskaraz argitaraturiko lehenengo gramatika liburua. Ez da erdararen batean idatzi eta euskarara bihurturiko lana. Aitzitik, euskaraz lehenengo eta gero gaztelaniara itzulitako liburu mardula dugu hau:

“Erderaz’ orainarteko izkiralariak legez’ izkinde au izkiratu banau’ arazu ta buruauste gitsiago emon izango eustan nire asmoak, ez nintzan itz barririk sortuteko peremina latzean egongo, liburu bi baten ipini bearrik bere ezneuan izango, eta ganera nire lantso onek eukiko dauzan arerio askok’ abegi ohea egingo eutsen” (vii or.)

Zailtasun guztien gainera, baina, Azkuek euskaraz idaztea erabakitzen du. *Euskal Izkindeaz* idatzi denean, behar baino garrantzi gutxiako eman zaio ahalgin honi. Izan ere, gehienera jota, aipatu baino besterik ez da egiten hauxe dela euskaraz kaleratutako lehenengo gramatika. Gure artean, egun, begi bistakoa dirudi euskara ezer baino lehen erabiliaz irauten duela bizirik, hizkuntza den aldetik; Azkue ere bat dator eritzi honekin, bere garaian horren zabaldua ez zebilen arren:

“Au gora bera’ itz orrei musker begiratuko dautsenik balego’ euskaraz izan ezik ez nenuala izkinderik izkiratuko beki. Noiz edo noiz euskaraak bere’ bere erraietan sorturiko arauen iaubea ta ama izan bear dau”(vii-viii or.)

Idatzi honek, ez eta honen aurretik burutu ditudanek, ez dute, inolaz ere, Azkuek “mi pobre primogénita” deitu zuen gramatikari buruzko azterketa oso bat itxuratzen. Asko eta asko dira oraindik lantzeko gelditzen direnak *Izkindeari* dagokionez, eta gutxi da orain arte egin zaion jaramona. Liburu honen ikerketak interes handia du gaurko egunean, bai gure hizkuntzaren bilakaerari dagokionez duen eraginagatik, eta baina euskal gramatikagintzaren alorrean iraultzen dituenak kontutan izanik.

Hiru urtez Bizkaiko Aldunduen Katedran lanean ihardun ondoren prestatutako gramatika liburua dugu *Izkindea*<sup>9</sup>. Aldundiaren Katedrak zuen garrantzia,

---

9. Bizkaiko Aldundiak sortutako euskarazko katedra honi buruzko argibideetarako, ikus bitez LAKA (1987d) eta KINTANA GOIRIENA (2002).

ezer baino gehiago, euskal lanen eragingarri bezala izan zezakeen indarra zen, hala nola bizkaiera idatzia arautzeko aukeran, Aldundia bezelako erakunde publiko batek eskeintzen zuen ofizialtasunagatik. Azkuek denbora asko igaro gabe eman zuen argitara bere lehen lan hau, katedra hartu orduko zirriborrotan hasita zeukana. *Izkindeak* aurkezten digun bizkaiera, arautua eta “txukundutakoa” dugu, lan hau baita, Azkue beraren eritzian, bizkaiera garbiaren mugarria:

“EUSKAL-IZKINDEA egin nuenean, Larramendik bezela “en adelante one-laxe izango da Bizkaiko euskalkia” enituen itz auek liburu artan ezarri; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk barru gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri jarriko zaigu”<sup>10</sup>.

Garai berriaren atari gisa aurkezten digu Azkuek bere *Izkindea*, Bizkaia eta euskararen berpiztearen aitzindari. Zentzu honetan, bada, *Izkindea* gramatika bat baino gehiago litzateke: Bizkaieraren pizkundeari zegokion euskara “berpiztua”ren liburua. Ondorioz, *Izkindeak* euskarari buruzko eritzi oso bat biltzen du bere orrietan. Azkue gaztearentzat euskara zer zen erakusten digu, berak nahi zuen euskarak nolakoa izan behar zuen, alegia. Euskarari buruzko ideia honek eratzen du *Izkindearen* lepezurra, gramatika guztiaren eraikuntza:

Euskaraaz izkera-mueta bi dagoz: euskaraa bera bere izkerantzakaz, eta diartekoa [*herrikoa*]; euskara garbia eta nastua. A bat dai, lau edo bost arpegiduna; beztea mila modutakoa. Nik aleginez euskara garbia arautu ta erakutsiko daut (viii. or.)

Gramatikarik dekriftiboenak ere, mintzatzen den hizketatik abstrakzio bat egin beharra dauka, noski. Haatik, Azkuek hemen egiten duen banaketa hau, herriko euskara/ euskara garbia, areago doa: axola dion hizkuntza, aztertu eta irakatsi nahi duena, euskaldunetz gaindi, denboraz gaindi dago. Bilatzen duen euskara ez da euskaldunen ahoetan bizi dena; azken hau, haren islatze hitsa baino ez da, geroz eta isla hitsagoa. Erabilerak, lehenetik orainarteko bidean ibili izanak, zarpaildu eta pitzatu egin du euskara, eta Azkue gazteak kalte horiek guztiak sendatu nahi litzuzke.

Honen adibide bat aurkitzen dugu *zu* izenordainaren jatortasun ezaz jarduten duenean: iragana hobea zen hizkuntzan aldaketarik egiten ez zuelako. Orainak, ordea, hizkuntza itxulatu du:

Lengo ikustaldietan erakutsi dainez [*denez*], *zu* diakoa dai, *i* bakarra; euskaraak lotsaz nai lautasunez itz eragiteko izkera bat ez batek ez daukan gaia dauka. ¿Langotasun bakan eder miragarri ta iakintsu au ostikpetuta ondo deritsoe euskaldunak *extrangero-en modako cortesiak* txatxarrak izan arren geuretuteari?

Antsinako euskaldunen entzuteak edonon gaur bere durundia egiten dau; eta ezeutsen euren aiteitai *on*-ik ezarri, ezeuen inoiz *zu*-rik ez *Berori*-rik entzun. (79.or)

---

10. AZKUE (1925), 4 orrialdea.



Gramatikalariaiak egin beharreko garbitze eta apaintze lanen ondoren bakarririk ezagutu daiteke *benetako* euskara garbia, ikuturik gabeko euskara zein den. izan ere, berebiziko edertasun eta osotasuna duen hizkuntzaren idoro nahiean dabilkigu Azkue, eta ez gizakion artean sortutako hizkuntzaren bila, euskara ez baita gizakion artean sortu:

Euskarara ez dai bezte izkeren antzeko aberatsa: aberatsa dai edozein baino aberatsagoa eta ugariagoa; ez dai baina aberastasun au zatika batua, bere erraieran, gizonen zelan ezdakiala sortua baino (152. or).

## 6. IZKINDEAREN ITURRIA: ASTARLOA

Azkue gazteak behin eta berriro azpimarratzen du euskara ez dela gaine-rako hizkuntzak bezelakoa. Bestelakotasun honen arrazoia aurkeztean datza, hain zuzen ere, *Izkindearen* muina; bestelakotasun honen arauera antolatzen da gramatika osoa. Euskara guztiz bestelakoa da, lehenengo hizkuntza delako, gainerako hizkuntzak sortu aurretik zen hizkuntza bakarra. Baieztapen honek zuzenean garamatza beste bizkaitar ospetsu batengana: Pablo Pedro Astarloa durangarraren ideietara, alegia. Astarloaren itzalean idatzirik dago *Izkindea*, eta itzal hau ez da izkututzen liburuan, ondoko hitzak adibide:

Ni geien argitu nauen izkiralariak, Astarloa, Zabala ta Campion daiz [dira]; eta euroei ezer kendu bage, neure ama maitea bere ez-iakinean izan dai nire irakaslerik onena. Guztioi eskerrak (ix. or.).

*Izkindeak* Astarloaren lanarekiko duen zorra, Tovar (1966) lanean aipatzen da lehenengo aldiz, guk dakigula behintzat. Astarloaren eragin hau, erabatekoa da, eta ez dago Campion edo Zavalak duten itzalaren mailan. Izan ere, Azkuek oso-osoan jarraitzen dio Astarloaren egitasmoari: lehen hizkuntza, hizkuntza naturala, euskara dela frogatzea. Beraz, *Izkindea* gramatika lan bat baino gehiago da; tesi baten defentsarako egiten du bizkaieraren aditza eta morfologiaren berrituraketa.

Aditzari eta joskerari dagozkien ataletan nabari da gehienik Astarloaren eragina *Izkindean*. Alor hauetan ikusten ditugu *Discursos Filosóficos*eko irakaspak asmoetatik egiteetara jarriak. Astarloak filosofiaren haritik eskeintzen dituen aintzinako euskarari buruzko hipotesiak, garbituriko euskara berrian gauzaturik agertzen dizkigu Azkue gazteak.

## 7. AMAITZEKO

Lan honen mugarrietatik kanpo gelditzen da *Izkindearen* gramatika erregelei buruzko azterketa zehatza<sup>11</sup>. Hemen, laburki bada ere, bestelakoa zen

---

11. Horretarako, LAKA (1986) lanera bidaliko nuke irakurlea, han aurkezten baita gramatika honen aditz sistema osoaren azalpen iruzkindua.

nire helburua: Azkuek XX. mendeko euskalaritzan eta euskal kulturaren izan zuen itzalaren neurria hartzean, uste ohi duguna baino areago zabaltzen zela erakutsi nahi nuen. Azkue, izan ere, ia-ia *dena* da gure historiarako hain garrantzitsua izan den mende iragan berri horretan: Azkue dugu garbizaletasunaren bultzatzailearik sutsu eta eraginkorra; Azkue dugu euskaltzaindiaren sortzaile, Azkue dugu garbizaletasunaren aurka, benetako euskararen erabilera defendatu zuena, Azkue dugu bere garaiko euskara eta euskalkiak eza-gutzeko lanik erraldoiena egin zuena; azkenik, Azkue dugu oraindik orain erreferentziazkoa den hiztegi bikainaren egilea. Hori lar delarik, ez ditut hemen aipatu ere egiten bere bestelako lorpenak, musika eta literarura alorrekoak.

Kinana Goirienea (2002) lanaren atarian, eskuartearen darabildan harira datorren pasadizua kontatzen zaigu:

“Azkue, bai, Azkue... Azkuek gauzak egin zituen, jakina, baina XX. mende hasieran Guridi zen euskal kultural!” Halaxe adierazi zidan behinola, beka deialdi batean, ikerketa proiektuak epaitzen zituen tribunaleko kide batek. Ez zitzion nonbait Azkueren gaia aski duina iruditzen bere baitan ikerketarik merezi izateko. Horregatik Guridirekin batera Unamuno, Baroka eta beste izen batzuk aipatu zizkidan, uste izatekoa denez Azkue ez bezala “egiazko” intelektualtzat zituenak. Anekdotak horrek, agerian jartzen du norainokoa den Azkuek daukagun ezjakintasuna, azken finean euskal kulturaren gaineko ezjakintasuna besterik ez dena. Zeren Azkue (edo Guridi) ikertuz gero, bata eta bestea ez zeudela elkarrengandik oso urrun ikus daiteke, beren bizitzak behin baino gehiagotan gurutzatu zirelarik. Halako ikerketak bultzatu ordez, baina, euskal kulturaren gaineko topikoak errepikatzen segitzen dugu”<sup>12</sup>.

Ez gaitezen, bada, iraganari begiratu berririk bota gabe gelditu, arakaturik eta ulerturik dagoelakoan. Are gehiago Azkueren kasuan, asko baita oraindik bere emaitzaren neurriaz jabetzeko egin behar ditugun lanak. Iraganaren ikerketak ez luke laudorioaren gainean laudorio erreza pilatzeko helburua izan behar, alferreko lana baita hori. Ikerketa horrek, gure aurretikoek guri eskuraturutako ondarearen zer nolakotasuna ulertzen lagundu beharko liguke, onerako zein txarrerako.

## BIBLIOGRAFIA

ARANA MARTIJA, J.A. (1983): *Resurrección María de Azkue*, Colección “Temas vizcainos” IX, 103-104 zenb. Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.

ASTARLOA, P.P. (1883): *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva*, Velasco, Bilbo.

AZKUE, R.M. (1891): *Euskal Izkindea*, Astuy, Bilbo.

---

12. KINTANA GOIRIENA (2002), 7. orrialdea.

- AZKUE, R. M. (1925): "Txukuneria", *Euskera* VI, 2-3 zenbakia.
- KINTANA GOIRIENA, J. (2002): *Vizcaytik Bizkaira?*, Mikel Zarate Saria, Euskaltzaindia-BBK, Bilbo.
- LAKA, I. (1986): "Euskal-Izkindeako aditza", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XX-3, San Sebastián, 705-755 or.
- LAKA, I. (1987a): "Manuel Arriandiaga. Euskal aditza, Bizkai Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XX-3, San Sebastián.
- LAKA, I. (1987b): "Arriandiagaren berrazterketarako oinarriak", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XX-2, San Sebastián.
- LAKA, I. (1987c): "Sabino Arana-Goiri eta Hiperbizkaiera", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XX-1, San Sebastián, 13-40 or.
- MITXELENA, K. (1981) "Lengua Común y dialectos vascos" *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)* XV, 289-313 or.
- TOVAR, A. (1966) "Azkue gramático" in *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista, y gramático*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo.
- VILLASANTE, L. (1973) *Historia de la Literatura Vasca*, Arantzazu.